

Donostiarron ikusmiran

# Autobus gehiago astebukaeretan

**t**ranbia Konpainiak autobus zerbitzuak indartuko ditu asteburuetan sei ibilbidetan. Zehatz mehatz, Gros-Intxaurren, Egia-Intxaurren, Hego Intxaurren, Benta Berri eta Benta Berri-Añorgan zerbitzu gehiago jarriko dira, Ernesto Gasco Bide Publikoetako zinegotziak jakinarazi duenez.

Beste erabaki bat ere hartu du Tranbia Konpainiak, Altza-Antigua zerbitzua Garbera merkatalguneraino luzatzea, alegia. Ez da oraindik argitu autobusak merkatalgunean bertan geltokia



izango duen ala ez, baina Gascok esandakoaren arabera, Udala eta Garberako arduradunak negoziazioetan ari dira.

Bestalde, asteburuetan gau autobus gehiago jartzea aztertzen ari da. Egun horietako ordu txikietan taxi geltokiak gainezka egoten dira eta horrez gain, "ez da lojiko autobus zerbitzua hain goiz amaitzea, ostalaritzaren ordutegiak gazteei beranduago arte egoteko aukera ematen dienean", adierazi du Gascok. Hau dela eta, baliteke ostiraletan ere gau autobusak jartzea eta ordutegia hirurak arte luzatzea.

## Pio XII.eko irtenbide proposamena

**p**io XII. plazan izaten diren auto pilaketa eta trafiko arazoak konpontzeko, Euskal Herritarrokek Karlos Lengo sarrerak kendu eta 22. Poligonora eramatea proposatu du. EHren arabera, errepide berria egin beharko litzateke inguru honetan. Sahiesbidea 22. Poligonoko errepide berri honekin lotuko balitz, hainbat abantaila izango litzukeela adierazi du EHk: Urumeako autobidearekin lotzeko aukera eta Amaran barrena Zorroaga pasealekutik eta Erdialdean Urumeako errepidetik sartu ahal izatea, besteak beste.

## Etxebizitza eskubidearen aldeko manifestazioa

**O**kupazioaren Aldeko Batzarrak manifestazioa deitu du ostiral honetan, hilak 10, "Etxebizitza denontzat, okupazioa bultzatuz" lelopean. Protestaldia Bulebarrean hasiko da 19.00etan. Manifestazioaren antolatzaileek etxebizitzari buruzko politika berraztertze eskatu diote Udalari. Horrez gain, lurzoru publikoan salmenta libreko etxerik ez dadila eraiki eta etxebizitzak hutsik dituztenei zergak jar diezazkietela ere eskatu dute. Hainbat erakundek bat egin dute beraiekin, ELA, LAB, CCOO, EH edota Jarraik, besteak beste.

**DATUA**
**2000**
**KONPARTSAKIDE**

Bi mila lagun inguru atera ziren ihauteri igande arratsaldean Donostiako kaleetara konpartsen desfilean. Eguraldi txarra zela eta, bertan behera utzi behar izan zen larunbateko desfilea, baina igandekoa arrakastatsua izan zen oso. Manu Narvaez KTEko buruak adierazi duenez, aurreko urteetan baino jende gehiagok parte hartu du aurtengo desfilean. Sari nagusia Loiolako Zuhaitz Taldeak eskuratu zuen.

## Parke berria Larratxon

Larratxok parke berria izango du urte bukaeran. Parkea autopista azpiko tunela, Garbera eta Lau Haizeta baserriaren artean egongo da eta 98.000 metro karratu izango ditu. Lanak udan hasiko dira eta aurrekontua 140 milioi pezeta izango da. Berdegune zabal horretan haurrentzako jolasak jartzea aurreikusi du Udalak.

